



*Bigarren Lehendakarioidea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2026KO MAIATZAREN 22KOA, ZEINAREN BIDEZ ZUZENTZEN BAITA 2026KO MAIATZAREN 21EKO AGINDUA ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA 2026KO MAIATZAREN 25ERAKO ETA EKAINAREN 15ERAKO OSASUN-SISTEMA NAZIONALEKO (OSN) ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN ETA GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN LANBIDE-KATEGORIA GUZTIETAN DEITUTAKO GREBAN GIZARTEARI EMAN BEHAR ZAIZKION FUNTSEZKO ZERBITZUAK MANTEDUKO DIRELA.

2026ko maiatzaren 21eko Aginduan, osasun-sistema nazionaleko (OSN) erdi-mailako teknikarien eta goi-mailako teknikarien lanbide-kategoria guztietan deitutako greban gizarteari eman behar zaizkion funtsezko zerbitzuak manteduko direla bermatzen duenean, akats material bat antzeman da eta, beraz, zuzendu egiten da:

7. orrialdean, ebazpen-zatiaren lehenengo paragrafoan, honako hau jasotzen da:

“Lehena. - EAEko erdi-mailako teknikarien eta goi-mailako teknikarien lanbide-kategorietako langile sanitarioek, 2026ko maiatzaren 25ean eta ekainaren 15ean, maiatzaren 25eko 08:00etatik maiatzaren 26ko 08:00etara, eta ekainaren 15eko 08:00etatik ekainaren 16ko 08:00etara, deitutako greba-eskubidea baliatzeko, honako funtsezko prestazio eta gutxieneko zerbitzuei eutsi beharko zaie:”

Honako hau adierazi beharko litzatele:

“Lehena.- EAEko Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) erdi-mailako teknikarien eta goi-mailako teknikarien lanbide-kategoria guztietako langileek, 2026ko maiatzaren 25ean eta ekainaren 15ean, maiatzaren 25eko 08:00etatik maiatzaren 26ko 08:00etara, eta ekainaren 15eko 08:00etatik ekainaren 16ko 08:00etara, deitutako greba-eskubidea baliatzeko, honako funtsezko prestazio eta gutxieneko zerbitzuei eutsi beharko zaie”

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DU:

Lehena.- Gutxieneko Zerbitzuei buruzko Aginduaren lehenengo ebazpen-zatiaren lehen paragrafoa aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

“Lehena.- EAEko Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) erdi-mailako teknikarien eta goi-mailako teknikarien lanbide-kategoria guztietako langileek, 2026ko maiatzaren 25ean eta ekainaren 15ean, maiatzaren 25eko 08:00etatik maiatzaren 26ko 08:00etara, eta ekainaren 15eko 08:00etatik ekainaren 16ko 08:00etara, deitutako greba-eskubidea baliatzeko, honako funtsezko prestazio eta gutxieneko zerbitzuei eutsi beharko zaie:”



Bigarrena. Gainerakoan, indarrean jarraituko du Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren 2026ko maiatzaren 21eko Aginduak.

Hirugarrena. - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke organo honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Era berean, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duenez, horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen,

**MIGUEL TORRES LORENZO
VICEPRESIDENTE SEGUNDO DEL GOBIERNO Y
CONSEJERO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO**